Alemana Euskaraz

Hizkuntza arrotzen irakaskuntzan euskara sartzeko pausutxo bat?

Jürgen Wolff

Talderen batean euskaraz ez dakienen bat dagoenean, denek erdarara jotzen dute. Gutxiengoarekiko errespetu horrek, miresgarri iruditzen zaidanak, baditu bere ondorioak euskararen erabileran, eta horretaz arduratuko gara artikulu honetan, bereziki hizkuntza arrotzen (frantsesa, ingelesa eta alemana) irakaskuntzan.

«Talde nahastuetan», hots, erdaraz dakitenen euskaldunen eta euskaraz ez dakiten erdaldunen artean, euskararen erabilerak sortzen dituen arazoetatik abiatuko gara. Ikusten dugu gertakari hori ematen dela Euskadin hizkuntza arrotzen irakaskuntzan ere, eta Alemana Euskaraz (AE) eredua aurkeztuko dugu sortu duen itxaropenagatik eta, aldi berean, itxaropen hori gauzatu denentz jakiteko prozedura. Gero partaideen artean egindako bi inkesta azalduko ditugu, euskararen erabilearen aldaketa argitzen dutenak, eta euskaratik alemanerako «bide zuzena» gaztelania tartean ez dela; bukatzeko, berriz, ereduaren eraginkortasunari, berau indartzen duten baliabideei, irakaskuntzarako materialei eta irakaslegoaren prestakuntzari buruzko ondorioak aterako ditugu.

1. «TALDE NAHASTUAK» ERDAL HIZTUN BIHURTZEN DIRA

Catalunyan gertatzen denaren alderantziz, talde batean euskaraz ez dakienik dagoenean, euskaldunek beren mintzaira aldatzeko joera dute; baita talde bereko beste euskaldunekin ere. Hori ez da albiste berria.

• Pertsona erdaldunen eragina eta euskara

Erabilpen-maila	*Denek dakitenean*	*Gehiengoak dakienean*	*Gutxiengoak dakienean*	*Norbaitek dakienean*
1. Euskaraz bakarrik	% 75,5	% 29,7	% 8,4	% 6,3
2. Euskaraz nagusiki	% 11,2	% 31,9	% 7,4	% 5,3
3. Erdaraz nagusiki	% 2,4	% 15,7	% 30,2	% 19,8
4. Ezer ez edo ezer gutxi	% 2,0	% 7,47	% 22,8	% 24,0
5. Ezer ez	% 4,4	% 9,7	% 25,0	% 37,9
6. Erantzunik ez	% 4,5	% 5,6	% 6,2	% 6,7

ZUTABE 22 (1990), 78-89 orr.

Euskararen erabilpena, *denek dakitenean*, kasik bakarra da. Halaz ere, *gehiengo batek dakienean*, euskararen erabilpena asko urritzen da eta *euskaldunak gutxiengo direnean* oso gutxi dira beste euskaldunei euskaraz egiten dietenak.

Frogatuta gelditzen da, honela, pertsona erdaldunen presentzia hutsak erdararen erabilpen bakar edo nagusia bultzatzen duela.

Demagun, ondorio gisa:

1. Maila primarioan (hau da, ahozko komunikazioan) euskarak toki nagusia hartzen du: ez bakarrik famili giroan, baizik eta orobat kanpoko giro eta elkarrizketagai desberdinetan ere (1).

Denek ulertzen duten hizkuntzara bihurtze honek, agian oso gauza laudagarria izango bada ere, bumerang-aren eragin berbera du: Euskadin, euskaldunen eta erdaldunen kopuruak direnak direlako, ez dago ia lekurik euskararen erabilerarako. «Giro nahasia» «erdal giro» bihurtzen da, denek dakitena nagusitzen da.

Erreakzioz pegatinak eta iragarkitxoak azalduko dira («Badakigu euskaraz») eta euskal txokoak, nolabait artikulu honetan deskribatuko dugun ereduari bide eman diotenak.

2. HELDUEI HIZKUNTZA ARROTZAK IRAKASTEA GAZTELANIAREN «BUNKERRA» ALA «EUSKAL TXOKOA»?

Irakaskuntzan euskararen erabilerari buruzko datuak urriak baina esanguratsuak dira. Erabat gaurkotuak ez dauden arren, ikuspegitxo bat ematen dute:

- **Ezagutzen eskuratzea euskaraz**

1. Baiezkoa	28,7 %
2. Erdizkakoa	8,1 %
3. Ezezkoa	52,6 %
4. Ez daki euskaraz	2,9 %
5. Erantzunik gabe	7,7 %

Inguramendu pobre xamarra, ikus daitekeenez. Hau da errealitatea.

36,82%k bakarrik baiezten du, era batera edo bestera, ezagutzak euskaraz lortu izana.

Honek zera adierazi nahi du: bere hizkuntzan ezagutzarik jaso ahal ez izateaz aparte, euskaldunen gehienengoak beste hizkuntza arrotz batean jaso dituela. Halaz ere, gutxiengo hau oso inportantea dugu, oso motibatua bait dago.

Baina kontuz, ezagutza hauek zein mailatan eskuratu dituzte? (2)

Gutxiengo batek bakarrik beregana-tu ditu ezagutza hauek helduaroan, eta horixe da guri interesatzen zaiguna.

• **Ezagutza-mailak**

1. Oinarrizko maila ..... 25,0 %
2. Erdiko maila ..... 9,9 %
3. Goimaila ..... 1,8 %
4. Ez daki euskaraz ..... 3,5 %
5. Erantzunik gabe ..... 59,8 %

Erantzuten ez dutenak, aurreko galderan beren hizkuntzan inolako ezagutzarik jaso ez dutela esan digutenak, erdia baino gehiago (59,8%).

Jaso dutenen artean, berriz, gehiengoa oinarrizko mailaraino bakarrik heldu da (25,0%); zenbaitzu erdiko mailaraino heldu dira (10%) eta oso gutxi izan dira unibertsitate-mailan jaso dutenak (1,8%).

Harrigarria litzateke hain hazi gutxirekin fruitu gehiago lortzea.(3)

Euskara hizkuntzen irakaskuntzan zenbat erabiltzen den jakin nahi izatera, pentsa dezakegu «besteak» atalean egongo dela hizkuntza arrotzen irakaskuntzan.

• **Gaiak edo ezagutza-alorrak**

1. Erlijioa ..... 47,9 %
2. Euskal hizkuntza eta kultura ..... 39,4 %
3. Politika ..... 26,2 %
4. Geografia eta Historia ..... 24,5 %
5. Ekonomia ..... 19,0 %
6. Besteak ..... 29,1 %

Banaketa honek garbi adierazten digu, euskarari nolabaiteko onarpena egin dion erakunde bakarra Eliza izan dela; bera da, herrian, entzulego zabal bat izan duena.

Euskara, beste erakunde guztietan, kanpoan gelditu da.

Beste gaiei buruz esan behar dugu azken urteotan Historia eta kultura (39,4%) sailean zentsura gutxiagotu egin zela, eta, oro har, bai honek eta baita beste gaiek ere, izkutuko argitarapenak gehienbatean, zein bideri jarraitu dioten argitzen digutela: Politika (26,6%), Geografia eta, bereziki, Herriko Historia (24,5%) eta Ekonomia (19,0%), bertan aspektu ideologikoak agertuz.(4)

Hizkuntza irakasteko bideen aldetik ere egin dezakegu azterketa. Seguru askigehienbat ikastaro bidez emango bait da.

• **Gaiak ikusi ondoren, *bideak*. Zeintzu izan dira ohizkoenak?**

1. Irratia ..... 46,9 %
2. Jaialdiak ..... 44,2 %
3. Irakurketa ..... 35,1 %
4. Hitzaldiak ..... 34,9 %
5. Besteak ..... 28,6 %
6. Ikastaldiak ..... 19,8 %

Ezin dezakegu uka kulturizazio-prozesua, euskararen bidez, euskaldunen erdiarengana bakarrik hedatu dela. Emaitzak, noski, pobreak dira. Baina, halaz ere, ezin lurperatu izan dute, asko saiatu izan arren. Euskarazko ekintza kulturalak katakunbetatik irteten hasiak dira, jadanik beste hizkuntza batzuen kalitate-maila lortuz, bai forma eta baita edukiera aldetik ere.

Datu hauek bat datoz gure esperientziak eta gure inkestak aurkitu dutenarekin: guk dakigunez, ez da inor aritu helduei hizkuntza arrotza euskararen bitartez irakasten, Morris/Zarautz ingelesa izan ezik, eta horri buruz ez da ezer argitaratu. Gertakari honen arrazoia izan daiteke, agian, helduei hizkuntza horiek irakasten aritu direnak berezko hiztunak direla, hots, kanpotarrak; eta horrelakoen euskararen ezagutzak ez dira erdarazkoen parekoak izaten, hauek inportanteagoak iruditzen zaizkielako. Agian hizkuntza arrotzak irakasten ari diren gehienak enpresa pribatuak, hots, irabaziari begira daudenak, izateak ere izango du horretan zerikusirik. Hauek, izan ere, ez dute taldeak jatorrizko hizkuntzen arabera eginez beren antolaketa konplikatzen ibiltzeko gogorik izaten, horrek irakaslegoaren kostuak bihalakotu egiten bait du. Arrazoi horiek eta guk ez dakizkigun beste batzuek gaur egun Euskadin ingelesa, frantsesa eta alemana, hizkuntza-zubirik behar denean, gaztelaniaren bitartez irakastera eraman gaituzte.

Baliteke irakastetxe komertzialetan egoera horrek atentziorik ez ematea, baina ezin onar daiteke inolaz ere TANDEM bezalako Kultur Zentru batean.

TANDEM, besteak beste, euskaltegietako ikastaro ohizkoetan sartu ezin diren kanpotarrei euskara irakasteari emana baldin badago, ezin onar daiteke euskara baztertzea alemana euskaldunei irakasteko ikastaroetan. Horregatik erabaki zen 1987an Alemana Euskaraz ikastaro esperimentalak sortzea.

3. «ALEMANA EUSKARAZ» IKASTAROA

Irakurle asko harrituko ditu alemana *euskaraz* edo *gaztelaniaz* irakasten dela jakiteak, *alemanez* egiten dela suposatzen bait da eta horrela ez bait da beste bi hizkuntza horien arteko problemarik sortzen. Izan ere, alemana, lehen mailetan, metodo zuzenez (alemanez) ikasten da, ikaslearen jatorrizko hizkuntzarik erabili gabe. Baina, hala guztiz ere, ekintza asko dago jatorrizko hizkuntzan egiteko, batzuk gero alemanez egingo direnak eta beste batzuk mailarik gorenetan ere jatorrizko hizkuntza mantenduko dutenak:

— irakasleari argibideak eskatu;
— behar den lexikoa galdetu;
— hitzen esanahiaz ziurtatu;
— ikasgelako kideei zerbait galdetu;
— txiste eta iruzkinak egin;
— ikasgelako martxari buruz iritziak eman;
— atsedenaldietan hitz egin;
— liburu eta koadernoetan apunteak hartu.

Jatorrizko hizkuntza zuzenean erabiltzeaz aparte, bada beste alderdi bat gutxiago entzun eta ikusten dena, bai-

na garrantzi handia duena. Hizkuntzalaritza kontrastiboarekin batera uste dugu irakaskuntzako materiala ikaslearen jatorrizko hizkuntzatik abiatuz aurkeztu behar dela, eta horretatik sor daitezkeen interferentziei aurrea hartu. Interferentzia hauek ez dira berdinak izango erdaldunentzat eta euskaldunentzat, eta klasea ere ez da berdin prestatu beharko. Alde honetatik, Alemana Euskaraz diogunean, ez dugu esan nahi alemana azalpenak euskaraz emanez edo euskarara itzuliz edo alemana eta euskara elkarrekin parekatuz ikasiko denik. Ez. Ikastaro hauek partaide guztiak euskaldunak direnean izaten dira, ikasleek eta irakasleak euskaraz dakitenean (nahiz eta aitortu beharra egon orain arteko bi ikastaroetan irakaslea gehiago nabarmentzen zela bere borondate onagatik bere benetako euskara-mailagatik baino).

AE lehenengo ikastaroa 1987ko urrian hasi zen Donostian eta 1988ko maiatzean amaitu, astean lau klase-orduz. Bederatzi partaideen artean, eta ordutegi-arazoak medio, bi erdaldunak ziren, eta horrek arazo franko ekarri zuen (batzuetan beren euskarako ezagutza xumeak umore onez erabiltzen bazituzten ere).

Bigarren ikastaroa 1988ko urrian hasi zen Donostian eta 1989ko maiatza arte luzatuko da. Alemanaren 0 mailatik abiatuz, 8 klase-ordu ematen dira astean. Ez da erdaldunik onartu partaideen artean. Bada honen antzeko beste ikastaro bat Gipuzkoako herri batean, baina ez dugu aztertu artikulu honetan.

Euskara-aleman material kontrastiborik ez dagoenez gero, MAITE LERNT DEUTSCH da testu-liburua, gaztelania eta alemanaren erkaketan oinarria duena. Bi irizpiderekin behatu genituen bi ikastaroak:

a) Egia al da euskara beste ikastaroetan, euskaldunak eta erdaldunak bilzen direnetan, baino gehiago erabiltzen dela?
b) Euskaratik alemanera zuzenean, erdararik gabe, joanez eta alderantziz, moztu egiten al da «pentsamenduaren bidea»?

Ezin izan zen klaseetako grabaketa eta traskripzio osorik egin. Ebaluazioa, beraz, irakasleak ikastaroaren joanean ikusi eta apuntatutakoan oinarrituz egin da, eta baita ikasleen arteko inkesta batean ere (gero azalduko dugu). Artikulu hau erakutsi zaie argitaratu aurretik, zuzendu eta zabal dezaten. Beraz, lehenengo hurbilpen bat besterik ez da, alor honetan estatistikarik gabeko zenbait ideia emateko modu bat.

Hona hemen erabilitako galdekizuna, euskaraz zabaldu baino lehen Amaia Otegik zuzendutakoa.

TANDEM DONOSTIA: IKERKETA SAILA
ALEMANA EUSKARAZ: KUESTIONARIOA

- **Datuak**

Adina: urte
Aita: euskaldun ☐ euskaldunberri ☐ erdaldun ☐
Ama: euskaldun ☐ euskaldunberri ☐ erdaldun ☐
Eskola: euskaraz ☐ bi hizkuntzetan ☐ erdaraz ☐ besterik ☐
Euskera ikasteko gaueskola, barnetegia etabar erabili duzu: bai ☐ ez ☐
Orain erabiltzen duzun hizkuntza etxean:
euskara ☐ erdara ☐ besterik ☐
lanean: euskara ☐ erdara ☐ besterik ☐
Beste ikastaroren batean, euskara erabili duzu ikasteko? bai ☐ ez ☐
Beste hizkuntza ikasteko, euskara erabili duzu? bai ☐ ez ☐

- **Hizkuntzaren erabilera**
  Zein hizkuntza erabiltzen duzu alemanezko ikastaroan (%a ipini, mesedez)

	euskara	*erdara*	*alemana*
Irakasleari galdetzeko			
Hitzak jakiteko			
Ikaskideari galdetzeko (euskara dakienari)			
(euskara ez dakienari)			
Txantxetako komentarioak egiteko			
Iritzia esateko			
Atsedenean			
Beste «Tandem» kideekin			
Liburu eta koadernoan apuntatzeko			

- **Parekotasuna**
  Euskarazko interferentziak nabaritu dituzu ikastaroko sail hauetan (adibideak ipini)
  Fonetikan
  Ortografian
  Gramatikan
  Sintaxian
  Hiztegian
  Modismoetan
  Nola pentsatzen duzu ☐ beti alemanez
  ☐ euskaratik alemanera eta alderantziz
  ☐ euskaratik (erdara bidez) alemanera eta ald.
  ☐ erdaratik alemanera eta alderantziz

- **Komentarioak**
  TANDEMean Alemana Euskarazko ikastaroa zegoela jakiteak zure erabakian eragina izan zuen?
  Zer proposatzen diozu TANDEMi euskararen egoera hobetzeko? (Beste oharrak atzean ipini, mesedez.)

- **Partaideen datuak**
  Emaitzei buruz ezer esan aurretik, hona partaideen datuak:
  Galdekizunak guztira: 12 (bi erantzun ematea zilegi zen)
  Lehenengo zenbakia 1987/88 ikastaroari dagokio eta bigarrena 1988/89ari.
  Adinak: 87/88: 18, 20, 22, 25, 30, 36 urte.
  88/89: 21, 22, 22, 23, 24, 34 urte.
  Aita: Euskaldun ☐ 4/6 euskaldunberri ☐ 0/0 erdaldun ☐ 1/0
  Ama: Euskaldun ☐ 6/6 euskaldunberri ☐ 0/0 erdaldun ☐ 0/0
  Eskola: euskaraz ☐ 4/1 bi hizkuntzetan ☐ 1/1 erdaraz ☐1/4 besterik ☐ 0/0
  Euskara ikasteko gaueskola, barnetegia etabar erabili duzu: bai ☐ 0/0
  ez ☐ 6/6
  Orain erabiltzen duzun hizkuntza etxean:
  euskara ☐ 6/5 erdara ☐ 3/2 besterik ☐ 0/0
  lanean: euskara ☐ 3/3 erdara ☐ 3/3 besterik ☐ 1/0
  Beste ikastaro batean, euskara erabili duzu ikasteko? bai ☐ 3/0 ez ☐ 2/6
  Beste hizkuntza ikasteko, euskara erabili duzu? bai ☐ 0/0 ez ☐ 6/6

Zenbakiez aparte, kontuan hartzekoa da ez zela aintzakotzat hartu ezta ere ziurtatu ikasleak alfabetatuak ziren ala ez.

Bi ikastaroetako erantzunak berezi egin dira. Orohar esan daiteke bigarrengoko ikasleak gaztexeagoak zirela, baina erdaraz gehiago eskolatuak.

Orain ebaluazioa.

4. EUSKARAREN ERABILERAN ALDAKETAK

Zenbaki hauek zenbait ondorio interesgarri ateratzeko bidea ematen dute.

4.1. Jatorrizko hizkuntzaren eta alemanaren arteko loturak

Alemanari (hirugarren zutabea) begiratuz eta ekintzaz ekintza aztertuz, garbi ageri da metodo zuzenaren eragina, ustez ikaskuntzarekin lotuago dauden ekintzetan gehiago erabiltzen bait da (zenbaki altuagoak ikusten ditugu). Atentzioa ematen du ikastaro batean txantxetan aritzeko ere ia erditan alemana erabili zela. Beste puntu bat, taula honetatik ondoriotzerik ez dagoen arren, irakasle batzuek ez dutela onartzen ikastaroetan gaztelaniez ezer esaterik, baina euskararekin «biguna-goak» direla, hau agian euskararen erabilera sustatzeko uste okerrarekin.

Zein hizkuntza erabiltzen duzu alemanezko ikastaroan? (%a ipini, mesedez)

	euskara	*erdara*	*alemana*	*Guztira*
Irakasleari galdetzeko	*51/93*	*1/0*	*48/7*	*100%*
Hitzak jakiteko	*48/93*	*4/0*	*48/7*	
Ikaskideari galdetzeko (euskara dakienari)	*86/100*	*0/0*	*14/0*	
(euskara ez dakienari)	*0/-*	*100/-*	*0/-*	
Txantxetako komentarioak egiteko	*40,6/97*	*16,6/0*	*42,6/3*	
Iritzia esateko	*78/98*	*5/0*	*17/2*	
Atsedenean	*63/100*	*36/0*	*1/0*	
Beste «Tandem» kideekin	*51/-*	*38/-*	*11/-*	
Liburu eta koadernoan apuntatzeko	*67/54*	*18/37*	*15/9*	

Oharra: zenbakiak borobildu egin dira, komaren ondorengoa ezabatuz.

4.2. Euskara-erdara erlazioa

Harritzekoa da gaztelaniaren presentzia. Agian lehenengo taldean konprenitzekoa da tartean bi erdaldun zeudelako eta TANDEMeko sozio-langile guztiek euskara menderatzen ez zutelako; baina ez da ulertzen bi taldeetan, baita erdara ezertarako erabiltzen ez dutenen bigarrengoan ere, gehiengoak apunteak mintzaira horretan hartzea.

Horrek, beharbada, ikasleak erdaraz eskolatuak izatearekin izango du zerikusia, nahiz eta, bakoitzaren erantzunak ikusiz, erabateko korrelaziorik ez dagoen. Berriro ere ondorio berberetara gatoz:

• **Bi mintzairak erabiltzeko ohitura**

Erabiltzen duten mintzaira	Hizketan	Irakurtzeko	Idazteko
1. Euskara bakarrik	34,3 %	6,1 %	6,0 %
2. Batez ere euskara	25,5 %	7,9 %	8,8 %
3. Biak berdin	12,7 %	12,1 %	7,8 %
4. Batez ere erdara	17,3 %	48,4 %	35,7 %
5. Erdara bakarrik	3,9 %	14,6 %	27,4 %
6. Ez daki euskaraz	0,2 %	0,2 %	0,2 %
7. Erantzunik ez	6,1 %	10,7 %	14,1 %

Ikusten dugun legez, euskaldunen artean 12,7 %k erabiltzen dituzte bi mintzairak berdin hizketan. Askoz ere gehiago dira, 59,8 %, batez ere euskara edo euskara bakarrik erabiltzen dutenak. Bestalde, batez ere erdaraz edo erdara hutsean mintzatzen direnak 21,2 % dira.

Gauzak oso desberdinak dira irakurtzean edo idaztean. Irakurtzean bi mintzairak berdin erabiltzen dituztenak hizketan dohain hori duten beretsuak dira (12,1 %). Batez ere erdaraz edo erdara hutsean irakurtzen dutenen portzentaia, ordea, aldatu egiten da (63,1 %).

Euskarak duen egoera diglosikoaren frogantza berri bat da hau. (7)

4.3. Bi taldeen arteko konparazioa

Ikus ditzagun, azkenik, bi taldeen arteko aldeak. Bigarren taldean gaztelaniarik ez izateak esplikazio garbia du: ez zen erdaldun hutsik eta honek esan nahi du ezinbesteko baldintza dela hori, AE ereduak erabateko arrakasta izan dezan. Bestalde, zerikusirik izan dezake irakasleek hiztegia menderatu eta ikastaroa eramateko zaulitasunarekin ere.

Lehenengo taldean alemana ugari erabili izanak badu arrazoi bat: ikastaro horretan ikasle batzuk itzultzaile eta hizkuntz irakasle zirela eta, beraz, hizkuntzaren irakaskuntzari buruz zerbait bazekitela. Horretaz aparte, kontuan hartzekoa da lehenengo taldearekin inkesta 7. ikasgaian zeudenean egin zela eta bigarrengoekin 3.ean.

Lehengo irizpidera itzuliz, esan daiteke euskara gehiago erabiltzen dela «talde nahasietan» baino. Baina, hauetan ez bait da hizkuntz problemarik sortzen, zinetan gaztelaniari laguntzen zaio. Dena den, esan daiteke Alemana Euskaraz ikastaroek lortzen dutela, oso-osorik ez bada ere, helduentzako hizkuntza arrotzen ikaskuntzan euskararen erabilerari lekua egiteko helburua.

Apika beste fruitu bat ere aipatzea komeniko da, ustegabeko emaitza izan bait da, baina atsegina: irakaslearen euskara-maila aski apala zenez, ikasleek izan zuten beren ikasteko zailtasunak besterengan ikusteko aukera. Honek, elkartrukean ikasteko berezko TANDEM sisteman bezala, dirudienez, lagundu egin zien galderak egiteko eta zalantzak argitzeko beldurra kentzen eta, orohar, konfidantza-giroa handitzeko modua eman zien.

5. HIRUANGELUKO PENTSAKERATIK BIDE ZUZENERA

Kezkatzen gintuen beste arazo bat hauxe zen: gaztelaniatik abiatuz, alemana ikasi behar zuen ikasle euskaldunaren diskriminazioa, horrelakoek gehiago saiatu behar bait dute eta hizketarako espontaneitatea eta abiadura moteldu egiten bait dira, bata besteare-

kin trabatzen diren itzulpenetan ari behar izaten dutelako.

Hona emaitzak puntu honi dagokionean:

Emaitza hauek, guk uste, zalantza sortuko dute. Ez du inor harrituko hasiberriek alemanez bakarrik ez pentsatzeak. Bigarren taldean gaztelaniaren interferentzia altua izatea ikasleen es-

Nola pentsatzen duzu?
0/0 ☐ beti alemanez
4/6 ☐ euskaratik alemanera eta alderantziz
2/4 ☐ euskaratik (erdara bidez) alemanera eta ald.
2/0 ☐ erdaratik alemanera eta alderantziz

kola-biografiak argi dezake: eskola erdaraz hartutakoek, berek diotenez, euskara-alemanez zein euskara-erdara-alemanez pentsatzen dute. Lehenengo taldean, ordea, bada bat, gurasoak euskaldunak izan arren eta bera euskaraz eskolatua, beti alemana-erdaraz pentsatzen duena. Ez dago, beraz, balorazio zingleegitan ibiltzerik. Aitortu beharra dago, bestalde, AE ereduaren bigarren helburua «pentsatzeko bidea moztutzea» ez dela erabat lortzen, gehienetan gauzatzen bada ere. Hona uste ez genuen ondorio bat. Dena den, pentsa daiteke AE ikastea, ikasle hauentzat, bide errazagoa dela «talde nahasietakoa» baino, hauetan beti gaztelaniaz pentsatzera behartuak egongo bait lirateke.

6. ALEMANA ETA EUSKARA ALDERATZEKO APUNTE BATZUK

Lan honentzat oinarri zatekeen gaztelania eta alemanaren ikerketa kontrastibo osorik ez dago, eta testugileek eta hutsune hori ahal den bezala, hurbilpen eta «etxeko» errore-analisiaz baliatuz, bete behar izaten dute. Auskalo, beraz, noiz aterako den argitara horrelako ikerketarik euskara eta alemana parekatuz.

Dena den, adibide gisa ez dira gaizki etorriko ikasleen iruzkinetatik eta ikastaroetan ikusitako erroreetatik ondoriotutako adibide batzuk, ikerketa hori zer eta nolakoa izan daitekeenaren adierazgarri.

Alemana ikasten ari diren erdaldunentzat bereziki zailak diren eta euskaldunentzat inolako trabarik ez duten adibideak bakarrik ekarriko ditugu hona edota erdaldunen artean ematen ez diren eta euskaldunek egiten dituzten erroreak aipatuko.

6.1. Fonetika

/tz/ euskaraz bezala (a*tz*o), alemanez (*z*u)

/x/ euskaraz bezala (kai*x*o), alemanez (*sch*on)

6.2. Ortografia

/tz/ euskaraz bezala (pu*tz*u), alemanez (je*tzt*)

6.3. Morfologia

Alemanezko deklinabideak ez ditu euskaldunak erdaldunak hainbat harritzen, batzuetan oker parekatzen badituzte ere (adibidez, nor-nori ez dira nominatibo-datiboa).

Zenbaitetan mugagabearen antzeko zerbait ere bada alemanez: zenbakiekin neurriak ez dira pluralean egoten (5 Mark und 5 Pfennig eta ez 5 Mark*stücke* und 5 Pfennige).

Lasaitu egiten ditu euskaldunak aditz alemanean, zail fama duen arren, sujetua atzizkiz bakarrik adierazten dela jakiteak.

Alemaneko «gerade» hitzak badu «-ten ari naiz» formaren antz-pixka bat.

Mugimendua eta posizioa adierazteko aditzetan, alemanean garrantzi handia dutenak preposizioa aldatzen dutelako, badira desberdintasunak.
Esaterako, iritsi+nora
ankommen+wo (non)

Erreflexibozko perpausetan ematen da askotan errore hau: Aitak bere burua hil du → Der Vater hat seinen Kopf tot gemacht (Alemanez, gaizki).

6.4. Sintaxia

Hasiberriek ezin izan dute oraindik zenbait perpausetan aditza atzean jartzeak alemanean eta euskaran duen antzik atzeman, baina, ikasle batek dioenez, euskararen galdegai-sistemak badu alemanean ere antzekorik.

6.5. Lexikoa

Aipagarriena bi hizkuntzen hitzak konposizio bidez sortzeko erraztasuna da, gaztelaniak ez duena. Esaterako: egon-gela Wohn-Zimmer

Bestalde, hizkuntza batetik besterako switch-ak ere gertatzen dira, fonetika edo ortografiaren aldetik gauza batzuek elkarren antza dutelako edo. Esaterako:

Alemana	*Euskara*	*Ondorioa*
da	han	Telefono-deietan nahasketa.
ist	da	Ist Herr X. da?
aber	baina	
Vaterland	aberri	Hitz-jokoak.
ja (fon./ia/)	bai	Gaizki ulertuak, besteak zein hizkuntzatan erantzungo duen ez dakigunean.
bei (fon./bai/)	ondoan	Hitz-jokoa.

Alemanez «igel» trikua azaltzean, euskarazko «igela» datorkigu burura. Tamalez, guk erabiltzen dugun liburuan elkarren ondoan ageri dira igelaren eta trikuaren irudiak. Ez zekien marrazkilariak nolako nahasketa sortuko zuen.

Era berean, Pilotin (hegazkinetako gidari emakumezkoa) azaltzen denean, «en pelotas»-ekin lotzen dute gaztelaniadunek eta pelotan aritzearekin euskaldunek. Denek egiten dituzte algara ederrak.

6.6. Modismoak

Ez dira asko agertu guk aztertutako mailetan, baina bada atentzioa ematen duen formularik. Esate baterako: *Ikusi arte Auf* Wieder*sehen*.

Semantizaziorako balio dute paralelismo hauek.

7. KONKLUSIOAK

Lehenengo, deskribatu ditugun ikastaroen etorkizunari buruz zenbait galdera egin beharko genituzke. Balio dutela frogatuta dago, nahiz eta oraindik ere argitu beharreko zenbait puntu ilun badagoen. Beraz, desiragarria da eta saiatu ere saiatuko gara poliki-poliki eskaintza zabaltzen maila bakoitzean «Alemana Gaztelaniaz» eta «Alemana Euskaraz» aukeratzeko modua eduki arte. Aski da lehenengo lau mailetan eskaintzea, handik aurrerako

ekintza guztiak (atsedenaldietako solasak salbu) alemanez erraz egin bait daitezke.

On litzateke sistema hori ingelesera eta frantsesera zabaltzea, alemanaren garrantzia zenbakietan azken urte hauetan harrigarriro hazi bada ere, ez bait da beste horiena hainbatekoa.

Horrek esan nahi du helduei hizkuntza arrotzak irakasten ari diren kanpotarrek euskara-maila dexentea eduki beharko dutela, batez ere entzumenaren eta ikasgelako komunikazioaren alorrean. Antzeko zerbait pentsatu beharko litzateke irakaslego publikoarentzat ere, baina kontuan hartuz ez dagoela euskara ikasten bakarrik aritzerik eta irakasleak aldatu egiten direla.

Epe luzera, eta jomugak gorago jarriz, euskaldunentzat behar den material didaktiko berezien arazoa ere hor dago. Ez da argitaletxerik euskaldunentzat bakarrik alemanezko liburuak ateratzeko arriskua bere bizkarrean hartuko duenik, eta are gutxiago horretarako ikerketak egingo dituenik. Alabaina, oraingo programaren batean oinarrizko behaztopa eta zailgune nagusiak bilduko dituen material gehigarria garatzeko bidea aurkitu behar da. Hauxe bera dio partaideen zenbait iruzkinek. Hona hemen batzuk (galdera: Zer proposatzen diozu TANDEMi euskararen egoera hobetzeko?):

— «Ikasleek euskara gehiago ikasi behar dute.
— «Ikastaroak euskaraz jarraitzea eta bertan lanean daudenei euskara ikasten laguntzea».
— «Irakasle guztiek euskaraz ikas dezatela, eta gero alemana erakusterakoan, erdaldun guziei bide batez euskara erakutsiko balitzaie, askoz ere hobeto. Halere, ez dut uste euskararen egoera hobetzea Tandem-en esku dagoenik (hobe hala balitz!).
— «Esandakoak esanda, uste dut gelan ikasle guztiak euskaldunak izateak laguntzen duela (pronuntziaketa eta antzeko arazoetarako batez ere)».
— «Liburuak euskara eta alemanez idaztea».

Azken hau oso helmuga urrutikoa izango da, baina uste dut Donostiako TANDEMeko Alemana Euskaraz ikastaroek izango dituztela geroan bere antzekoak beste hizkuntza eta hirietan, bereziki Hizkuntz Eskola Ofizialetan eta Unibertsitatean, hauek partaidemultzo handia dutelako, errazago ezar bait ditzakete.

• AIPUAK

(1) *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Euskaltzaindia, 100. or.
(2) Aip. lib., 136. or.
(3) Aip. lib., 136. or.
(4) Aip. lib., 137. or.
(5) Aip. lib., 137. or.
(6) Jürgen Wolff (1986): «*Tandem* metodoa eta kulturarteko zentruak» In: *Zutabe*, 11. zenb., 97.or.
(7) Euskaltzaindia, aip. lib., 115. or.

ESKERTZA

Ez zatekeen ikerketa hau egiterik egongo alemana-euskara 1987/88 eta 1988/89 ikastaroetako partaideen laguntzarik gabe. Eskerrak zuen pazientziagatik.

Itzultzailea: Boni Urkizu

ALEMAN EN EUSKERA

«¿Qué papel debe jugar la lengua materna en el aprendizaje de una segunda lengua?» Sin duda esta es una de las cuestiones que, aunque sólo fuera por razones de índole práctica, debe abordar todo aquel que se dedica a la enseñanza de una segunda lengua en Euskadi.

En el caso concreto de la enseñanza del alemán, el grupo Tandem piensa que esa utiliza-

ción debería circunscribirse básicamente a los cuatro primeros niveles, ya que a partir de este momento todas las actividades, con la excepción tal vez de los recreos, pueden llevarse a cabo fácilmente utilizando sólo el alemán.

En Euskadi, no obstante, debido a su singularidad lingüística, debe hablarse no de una sino de dos lenguas maternas. La constatación de esa realidad, precisamente, y el respeto que ella se merece han llevado a Tandem a organizar también cursos de alemán dirigidos a euskaldunes. El artículo describe una de esas experiencias, mencionando los problemas surgidos y apuntando las condiciones precisas para que los cursos puedan cumplir sus objetivos desde la perspectiva de la utilización de la lengua materna.

GERMAN IN BASQUE

«What role should the mother tongue play in the learning of a second language?» Without a doubt this is one of the questions which, even if it were only for reasons of a practical nature, should be taken into consideration by all those who are dedicating themselves to the teaching of a second language in the Basque Country.

In the concrete case of the teaching of German, Tandem thinks that that utilization should be limited basically to the first four levels. From this moment on, all the activities, with the exception maybe of recreational ones, can be fulfilled easily using only German.

In the Basque Country, however, owing to its linguistic singularity, we should speak not of one, but of two mother tongues. The establishment of that reality, precisely, and the respect that it deserves have brought Tandem to organize as well German courses directed toward Basque-speakers. The article describes one of those experiences, mentioning the problems that arose and noting the conditions those courses require in order to fulfill their objectives from the perspective of the utilization of the mother tongue.

ALLEMAND EN EUSKERA (BASQUE)

Quel rôle doit jouer la langue maternelle dans l'apprentissage d'une seconde langue? C'est là, sans doute, l'une des questions que, ne serait-ce que pour des raisons d'ordre pratique, doivent aborder tous ceux qui s'occupent de l'enseignement d'une seconde langue en «Euskadi» (Pays Basque).

Dans le cas concret de l'enseignement de l'allemand, le groupe Tandem pense que cette utilisation devrait se circonscrire surtout aux quatre premiers niveaux puisque, à partir de ce moment-là, toutes les activités peuvent se réaliser, à l'exception peut-être des récréations, en se servant exclusivement de l'allemand. En Euskadi, néanmoins, on doit parler de deux langues maternelles, à cause de sa singularité linguistique. La constatation de cette réalité et le respect qu'elle mérite ont précisément amené Tandem à organiser aussi des cours d'allemand adressés aux bascophones. L'article décrit une de ces expériences mentionnant les problèmes qui ont surgi et indiquant les conditions exactes pour que ces cours-là puissent remplir leurs objectifs du point de vue de la langue maternelle.